

## P4 Ariketa. Tonemak detektatu

Entzun albiste honen audioa eta saiatu zaituz hutsune bakoitzaren tonemak identifikatzen. Gogoratu tonemak honela irudikatzen direla:

Kadentzia: ↓

Antikadentzia: ↑

Suspensioa: →

Semikadentzia: ↘

Semiantikadentzia: ↗

Aste iluna ( ) izaten ari da zinemagintza alorrean ( ). Astearte arratsaldean Jose Luis Cuerda ( ) espainiar zinegilea ( ) hil zela izan zen albiste ( ), eta gaur ( ), berriz ( ), Hollywood klasikoko aktore handienetako batek esan digu agur ( ): Kirk Douglasek ( ). Belaunaldi eta herrialde ezberdinetako ikur izan dira ( ) Cuerda eta Douglas ( ).

103 urte zituela ( ) hil da bertan Douglas ( ), Hollywoodeko Urrezko Aroko aktore emankorrenetakoa ( ). Hirutan Oscar sariak irabazteko hautagai izan bazen ere ( ), ez zuen sekula garaikurrik lortu ( ), 79 urterekin jaso zuen ohorezko saria salbu ( ).

Nazioartean ospetsu egin ziren drama generoko filmetan parte hartu zuen ( ): Stanley Kubricken Paths of Glory ( ) eta Spartacus pelikuletan, Minelliren The Bad and the Beautiful, Lust for Life edota Billy Wilderren Ace in the Hole maisulanetan aztarna gogoangarria utzi zuen.

Gainera ( ), industria zinematografiko estatubatuarrari aurre egiten ausartu zen bakarrenetako izan zen ( ). 50eko hamarkadan ezkerreko sortzaileen kontrako sorgin ehiza ( ) eta zerrenda beltz famatuak deuseztatzeko gogor lan egin zuen ( ), Joseph McCarthy senatari antikomunistaren politiken aurka ( ).

Bestalde ( ), otsailaren 4an ( ), 72 urte zituela ( ) zendu zen Cuerda ( ). 1980ko hamarkadan hasi zuen Albaceten jaiotako zinegileak bere ibilbidea ( ), eta hasiera-hasieratik ( ) komedia absurdoaren erregea izan zen. Bere izena *Amanece, que no es poco* filmari lotuta dago ( ), izan ere ( ), espainiarraren lan arrakastatsuen bilakatu da, nahiz eta estreinaldi xumea izan zuen bere garaian ( ). Kultuzko filma izatera iritsi da ( ), batez ere ( ), umorearen erabilpen pertsonal eta partikularragatik ( ).

**Albiste zinea.eus web orrialdetik hartuta eta moldatua**